

## Indarkeria matxistari aurre egiteko tresna eta PROTOKOLO eraginkorrak exijitzen ditugu

Sistema kapitalista heteropatriarkalak indarkeria matxista erabiltzen du emakumeak\* menpeko posizio batean mantentzeko, modu sistematikoa, baita lan munduan ere. Izan ere, gure lantokiak jendartearen isla dira: hierarkietan eta botere harremanetan oinarritzen den errealitatea, generoen arteko desberdintasunak emakumeon diskriminazio iturburu bihurtzen dituena.

Indarkeria matxistak forma espezifikoak hartzen du lan munduan:

> Nahiz eta gero eta eraso gehiago salatzen diren, indarkeria matxista ezkutuan geratzen da askotan, **zigor eta mehatxu** zuzen eta zeharkakoen ondorioz: kalera-zeak, ordutegi aldaketak, kontziliaziorako neurriak ez baimentzea, jazarpen sexuala eta sexista...

> Lantokiak indarkeria matxistarako leku "aproposa" dira, **botere harreman ezberdinak gurutzatzen direlako**, zapalkuntza ardatz bat baino gehiagok elkar zeharkatzen dute eta honek ahulezia eta babesgabekia egoera larriagoan jartzen ditu hainbat pertsona eta kolektibo.

> Gainera, **kapitalak, indarkeria matxista erabiltzen du doan egiten dugun lanaz jabetzeko** eta, lan munduan, esplotazio hutsezko enpleguetara lotuta izateko, mehatxuen bitartez baldintza hobekien lortzeko protesta ez dezagun edo esplotazio hori salatu ez dezagun.

Ezkutuan mantentzeko nahi duten errealitate honen aurrean, LAB-etik hiru ideia azpimarratu nahi ditugu:

### 1. Protokoloak ezinbesteko tresna dira lantokietan indarkeria matxistari aurre egiteko.

Emakume\* eta gorputz identitate disidenteak zapaltzen dituen biolentzia sistemikoaren aurrean, babesgabe eta egoera hauei aurre egiteko tresnarik gabe aurkitzen gara gehienetan. Protokoloak dira sexuan oinarritutako jazarpenari eta sexu-orientazioan edo genero-identitate nahiz adierazpenean oinarritutako jazarpenari aurre egiteko ditugun tresnarik eraginkorrenak. Ezin ditugu-

lako emakumeak\* babesgabe eta bermerik gabe utzi indarkeria matxista salatzerako orduan, honetarako lantokietan sistematizatutako prozesuak eta protokoloak beharrezkoak dira.

### 2. Edozein neurri ez da nahikoa eta edozein neurrik ez du bermatzen lantokiak emakumeontzako\* espazio libreak izatea.

Enpresa asko daude protokolorik ez dituztenak. Baina beste asko eta asko ere badaude indarkeria matxistaren kontrako edozein neurri hartzen dituztenak, inolako bermerik gabe. Guk horren aurrean protokolo eraginkorrak exijitzen ditugu: lanketa bat izango dutenak eta langileekin negoziatutakoak. Plantilla osoarentzat formazioan eta sentsibilizazioan oinarritutako protokoloak, ez legea nolahi betetzeko neurri eraginkorrak, papera betetzeko. Protokolo errealak behar ditugu, indarkeria mota guzti horiek prebenitzeko eta aurre egiteko. Hauek langileen parte hartzearekin diseinatu behar dira, edukiak zabaldu, kontzientziazio lana egin, eta ondo aplikatu.

### 3. Borondate politiko falta nabaria da, enpresak eta erakundeak derrigorrezko protokolo eraginkorrak martxan jartzera.

Gaur egun indarrean dauden legedi guztien arabera, indarkeria matxistaren aurkako **protokoloak** ez dira derrigorrezkoak enpresa eta lantokietan: Indarkeria matxistarik gabeko lantokiak ahalbideratzeko **neurriak** hartzea proposatzen du eta neurri hauek negoziatuak izan behar direla esaten badu ere, enpresak ez daude behartuak. Modu honetan enpresa bakoitzaren borondatearen esku utzita eremu honetan egin beharreko inbertsioak. Jarrera hauen atzean dagoen borondate politiko falta ere salatzen dugu.

Aurtengo azaroaren 25ean ere badugu, beraz, zer borrokatu. Emakumeok\* lantokietan aske izateko eskubidea aldarrikatzearekin batera, protokoloak sustatu ditzaten eskatuko dugu enpresetan.

## Exigimos PROTOCOLOS y herramientas efectivas contra la violencia machista

La violencia machista es una herramienta del sistema capitalista heteropatriarcal para mantenernos a las mujeres\* oprimidas de manera sistemática; también en el mundo laboral. La violencia machista que se da en el espacio laboral es un reflejo de la sociedad en la que vivimos, basada en jerarquías y relaciones de poder, donde la desigualdad de género supone la discriminación de las mujeres\*.

La violencia machista adquiere una forma específica en el mundo laboral:

> Aunque cada vez se denuncian más agresiones, la violencia machista es una realidad que a menudo permanece oculta como consecuencia de **castigos y amenazas** directas e indirectas: ser despedidas, cambios de horario, impedir o no conceder medidas de conciliación, acoso sexual y acoso sexista...

> Los centros de trabajo acaban siendo un lugar favorable para este tipo de violencia **porque se entrecruzan además diferentes relaciones de poder**. Son lugares atravesados por diferentes ejes de dominación como sexo, raza u origen, clase, diversidad funcional... lo que sitúa a muchas personas y colectivos en una grave situación de vulnerabilidad y desprotección.

> El capitalismo, **además, utiliza la violencia machista para apropiarse de nuestro trabajo gratuito**. Mediante esta violencia, nos obliga también a permanecer en trabajos en los que somos explotadas, amenazándonos para que no luchemos por mejorar nuestras condiciones laborales.

Ante esta realidad que pretenden mantener oculta, desde LAB, quisiéramos remarcar tres ideas:

### 1. Los protocolos son una herramienta imprescindible para hacer frente a la violencia machista en los centros de trabajo.

Las mujeres\* y cuerpos e identidades disidentes nos encontramos la mayoría de las veces desprotegidas y sin herramientas para hacer frente a esta violencia sistémica que nos oprime. Los protocolos son las herramientas más eficaces con las que contamos para com-

batir el acoso por razón de sexo y el acoso por razón de orientación sexual o por razón de identidad y expresión de género. No podemos dejar a las mujeres\* desamparadas y sin garantías a la hora de denunciar la violencia machista; por esto son necesarios procesos y protocolos sistematizados en los centros de trabajo.

### 2. Cualquier medida no es suficiente y cualquier medida no garantiza que los centros de trabajo sean espacios libres para las mujeres\*.

Hay muchas empresas que no tienen protocolo. Pero también hay muchas más que introducen cualquier medida contra la violencia machista sin ninguna garantía. Nosotras exigimos protocolos eficaces: que tengan un trabajo previo y sean negociados con los sindicatos. Protocolos basados en la formación y sensibilización para toda la plantilla, no queremos medidas únicamente para cumplir la ley de cualquier manera o para complimentar el papel. Necesitamos protocolos reales para prevenir y combatir todo tipo de violencias. Estos deben diseñarse con la participación de las personas trabajadoras, difundir los contenidos, realizar un trabajo de concienciación y aplicarlos correctamente.

### 3. La falta de voluntad política es evidente a la hora de obligar a las empresas e instituciones a poner en marcha protocolos eficaces.

Según las diferentes leyes vigentes en la actualidad, los **protocolos** contra la violencia machista no son obligatorios como tales en las empresas y centros de trabajo. La ley propone la adopción de **medidas** para facilitar centros de trabajo libres de violencia machista, y aunque dice que deben ser negociados, las empresas no están obligadas a diseñar **protocolos**, dejando así a la voluntad de cada empresa las medidas a realizar en este ámbito. También denunciamos la falta de voluntad política que hay detrás de estas actitudes.

Por todo ello, este 25 de noviembre las mujeres\* seguimos luchando y reivindicando el derecho de ser libres en los centros de trabajo. Exigiremos a las empresas que promuevan protocolos contra la violencia machista.